

Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN**22/2020 TXOSTENA****Gaia:** Alarma egoerak izapideen tramiteetan daukan eragina**Txostenaren oinarria:** Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3. artikulua**1. Aurrekariak**

Lehenengoa.- COVID-19ak sortutako osasun krisia kudeatzeko Alarma Egoera ezartzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onartu zen.

Bigarrena.- Errege Dekretuaren 3. Xedapen Gehigarrian administrazio epeen etetea jaso da.

Hirugarrena.- Bermeoko Udalean hainbat erabaki hartu dira emergentzia egoera aldarrikatzeko kontratazioan, gastuaren kudeaketan eta giza baliabideen kudeaketan eta telelanaren bitartez lan egitea baimenduz.

Horrela, Bermeoko udaleko langile gehienak lanean jarraitzen dute telelanaren bitartez.

2. Oinarri juridikoak**2.1. Aplikagarria den araudia**

- Martxoaren 14ko 463/2020 Errege dekretua Alarma Egoera adierazten dena COVID-19 osasun krisiaren egoera kudeatzeko.

2.2. Azterketa juridikoa

- **Etenda dauden epe administratiboei buruz**

Martxoaren 16ko 463/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren 3. Xedapen Gehigarrian administrazio prozeduren epeen etetea arautu da. Xedapen horren arabera:



1. Se suspenden términos y se interrumpen los plazos para la tramitación de los procedimientos de las entidades del sector público. El cómputo de los plazos se reanudará en el momento en que pierda vigencia el presente real decreto o, en su caso, las prórrogas del mismo.

Atal horretan argitu behar da epemuga hitzak egun zehatz bati egiten diola erreferentzia eta epeak, denbora tarte bati.

Behin argituta epemuga eta epearen arteko aldea, legegileak kontzeptu bi nahasten ditu: etetea eta geldiaraztea. Izan ere, epeak eteten direnean, berrabiarazten dira zeunden egoera berberetik; ostera, geldiarazteak esan nahi du epeak zerotik hasten direla kontatzen.

Kasu honetan, berrabiarazteari buruz hitz egiten denez, eteteari buruz ari garela ulertu behar dugu; eta beraz, alarma egoera altxatzen denean egon diren egoeratik jarraituko dira zenbatzen.

Hori guztia estatuko abokatutza orokorraren 2020ko martxoaren 26ko txostenarekin bat.¹

2. La suspensión de términos y la interrupción de plazos se aplicará a todo el sector público definido en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Beraz, argi dago Udalari, Gizarte Ongizateko Udal Patronatuari, Udal Kirol Patronatuari eta Beruala S.A.ri aplikatzen zaiola agindu hau.

3. No obstante lo anterior, el órgano competente podrá acordar, mediante resolución motivada, las medidas de ordenación e instrucción estrictamente necesarias para evitar perjuicios graves en los derechos e intereses del interesado en el procedimiento y siempre que éste manifieste su conformidad, o cuando el interesado manifieste su conformidad con que no se suspenda el plazo.

4. Sin perjuicio de lo dispuesto en los apartados anteriores, desde la entrada en vigor del presente real decreto, las entidades del sector público podrán acordar motivadamente la continuación de aquellos procedimientos administrativos que vengan

¹ Ref.: Entes públicos (aecid) cuestiones sobre disposición adicional tercera del Real Decreto 463/2020



referidos a situaciones estrechamente vinculadas a los hechos justificativos del estado de alarma, o que sean indispensables para la protección del interés general o para el funcionamiento básico de los servicios.

Beraz, prozedura administratiboarekin jarraitu ahalko da hurrengo kasuetan:

- Alarma egoeraren ondoriozko prozedurak izateagatik.
- Interesdunen eskubide edo interesetan kalte larririk ez gauzatzeagatik.
- Interesdunaren adostasuna egoteagatik.
- Interes orokorra babesteko ezinbestekoak izateagatik.
- Zerbitzuen oinarrizko funtzionamendua babesteagatik.

Kontuan izan behar da Bermeoko udaleko, erakunde autonomoetako eta sozietateko langile gehienak lanean jarraitzen dutela telelanaren bitartez. Horregatik, Saitetako oinarrizko funtzionamendua babesteko aukera dago. Noski, argi izanda, betiere, osasun alarma egoera honen ondoriozko izapide, prozedura eta erabakiak lehenetsun osoa izan behar dutela.

Salbuespenak aplikatzen badira arrazoitutako erabakia hartu behar da. Horretarako, aukera dago erabaki orokor baten arrazoitzeko, zein prozedura administratiborekin aurrera egingo den eta ondoren espediente konkretuetan justifikatzeko zergatik aurrera egin den.

Espedienteekin jarraitzen bada, argi izan behar da interesdunentzat eragina duten izapide edo erabakiak ez dutela eraginik izango alarma egoera altxatu arte, salbu eta espedientearekin jarraitzeko interesdunen adostasuna badago.

I. eranskinean jarduteko gomendioak jaso dira:

5. La suspensión de los términos y la interrupción de los plazos a que se hace referencia en el apartado 1 no será de aplicación a los procedimientos administrativos en los ámbitos de la afiliación, la liquidación y la cotización de la Seguridad Social.

6. La suspensión de los términos y la interrupción de los plazos administrativos a que se hace referencia en el apartado 1 no será de aplicación a los plazos tributarios, sujetos a



normativa especial, ni afectará, en particular, a los plazos para la presentación de declaraciones y autoliquidaciones tributarias.

Tributu epeetan ez da 3. Xedapen Gehigarria aplikatuko.

Horretaz gain, 2. Xedapen Gehigarriaren arabera esan behar da epe prozesalak auzi guztietan ere eten direla.

Azkenik, 4. Xedapen Gehigarriaren arabera, preskripzio eta irauingitze epeak eten dira alarma egoerak irauten duen bitartean.

3. Ondorioak

Alarma egoerak irauten duen bitartean:

- Erregela orokor moduan administrazio-prozedurak etenda daude. Baina prozedura administratiboarekin jarraitu ahal izango da hurrengo kasuetan:
 - Alarma egoeraren ondoriozko prozedurak izateagatik.
 - Interesdunen eskubide edo interesetan kalte larririk ez gauzatzeagatik.
 - Interesdunaren adostasuna egoteagatik.
 - Interes orokorra babesteko ezinbestekoak izateagatik.
 - Zerbitzuen oinarriko funtzionamendua babesteagatik.

Salbuespenak aplikatzen badira arrazoitutako erabakia hartu behar da.

- Osasun alarma egoera honen ondoriozko izapide, prozedura eta erabakiak lehentasun osoa izan behar dutela.
- Bermeoko udaleko eta bere mendeko erakunde zein sozietatearen kasu konkretuan langile gehienak lanean jarraitzen dute telelanaren bitartez. Horregatik, espedienteekin jarraitu daiteke, baina argi izan behar da interesdunentzat eragina duten izapide edo erabakiak ez dutela eraginik izango alarma egoera altxatu arte, salbu eta espedientearekin jarraitzeko interesdunen adostasuna badago.



- Epe prozesalak auzi guztietan eten dira.
- Preskripzio eta iraugitze epeak eten dira.

Hori da nire ustea, gaur egun indarrean dagoen araudiaren arabera eta zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Dena den, Alkatetzak egoki deritzona erabakiko du.

Bermeon, orri oinean zehaztutako datan

Jurdana Uriarte Lejarraga

Idazkari nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E40003FC1400L9M0Q9J0W7H6

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 31/03/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 31/03/2020
17:40:03

EXPEDIENTE ::
2020IDA_DOK0013
Data: 16/01/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



- I. Eranskina. Alarma egoera irauten duen bitartean jarduteko gomendio orokorrak
 1. Orokorrean jakinarazpenak elektronikoki egingo dira. Interesdunen errekurtsioak jartzeko aukerak edo erabakien ondorioz egin beharreko betebeharren epeak etenda daude, alarma egoera altxatu arte.
 2. Argitarapenak (boletinetara, egunkarietara...) bideratu daitezke, baina erregela orokor moduan argitaratzeko agindua alarma egoera altxatzen den egunerako egitea gomendatzen da. (Salbu eta epeak ez badaude etenda)
 3. Txostenak, ziurtagiriak, eginbideak, probidentziak, artxiboak, aktak... egin daitezke.
 4. Hirigintzako eta ingurumeneko lizentziak tramitatu daitezke. Baina argi izan behar da audientzia eperik badago horiek etenda egongo direla.
 5. Esleitzear dauden diru-laguntzak, sariak eta gainerako laguntzak eman daitezke.
 6. Beste administrazio batzuetatik esletutako diru-laguntzak justifikatu daitezke.
 7. Zehapen espedienteak bideratu daitezke, entzunaldi fasera arte.
 8. Errekurtsioak, erreklamazioak eta alegazioak ebatzi daitezke. Horien ondorioz, interesunek eginbeharrak badituzte horiek egiteko epeak etenda daude.
 9. Kontratuen inguruan 21/2020 idazkariaren txostenean jasotako betetzea gomendatzen da.
 10. Kontratuak esleitu daitezke eta sinatu, baina enpresaren eginbeharrak etenda geldituko dira, salbu eta adostasuna badago enpresarekin. (Erabakian exekuzioa noiz hasiko den zehaztea gomendatzen da).

**Sinadurea eta data**

11. Tributu arloko eta diru-bilketako epeak arau espezifikoaren arabera arautuko dira.
12. Aplazamenduak eta zatiketak tramitatu daitezke.
13. Ondare erantzukizuneko espedienteak tramitatu daitezke (audientzia izapidera arte).
14. Kalte-ordainak eskatu daitezke (interesunek egiteko behetreibeharra duten arte)
15. Fakturak onartu, izapidetu eta ordaindu daitezke
16. Gardentasun atalean eta wenbugean dagozkion argitarapenak egin daitezke.
17. Ondarearen erabileragatik baimenak izapidetu daitezke. Argi izanda gutxienez alarma egoera irauten duen epean ezin direla baimendu.
18. Alarma egoerari aurre egiteko langileria kontratatu daiteke eta baliabide pertsonalak berrantolatu daitezke.
19. Aurretik datozen hautaketa prozesuko langileak izendatu daitezke eta kargu hartu ahalko dute, beti ere, interesdunak adostasuna ematen badu.
20. Beste administrazioengatik eskatutako izapideak burutu daitezke.
21. Interesunaren adostasuna duen edozein izapide burutu daiteke.
22. Epe honetan interesunek egiten dituzten edozein galdera, eskaera edo agiriri erantzun ahal zaio.
23. Interesdunek aurkeztutako agiri guztiak balioa izango dute eta aurkeztutak joko dira.
24. Epe honetan interesunek eskatuta zabalduko edozein prozedurari ekin ahal zaio.
25. Ez dira etengo interes orokorra bermatzeko edo oinarritzko zerbitzuak bermatzeko (hilerriko zerbitzuak, garbitasuna, sastar batzea, argiteria, ur hornidura) aurrera egin behar duten prozedurak (Justifikatu behar da).



* Kasu guztietan interesdunen eskubide eta interesak bermatu behar dira.

** Epeak ez eteteko erabaki arrazoitua izan behar da.



Agiri hau benetakoa dala udalaren
egoitza elektronikoan egiaztatu ahal
dozu.

Kodea:

07E40003FC1400L9M0Q9J0W7H6

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 31/03/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 31/03/2020
17:40:03

EXPEDIENTE ::
2020IDA_DOK0013

Fecha: 16/01/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea:

Erregistro nagusia

